

“bertikalki” erabili ezinik ez dagoela, bestea gainerakoetarako utziaz. *Zear* edo *zehar*, ez dala “horizontal”, baizik “transversal”-en kideko. Gure artean, *ordezkaritza* beti erabili dela “delegación”-en ideaz, eta *bulego*, “oficina” esateko bereizten dela, aspaldiko urteetan Euskaltzaindiko agiriarian agertzen denez.

g) *Batzordeak eta bakoitzak dakartenarenean*: Gredos argitaldariai argitara berri duen Joan Corominas-en *Diccionario Crítico-Etimológico de la Lengua Castellana*, gure lanetarako hain premiazkoa denez, erostea erabaki da.

Irigoyen eta Lizundiak, biblioteca eraberritzeko diru eske-kanpaña egitea eskatzen dute. Ontzat hartu da.

*Symposium* ttipia, edo lehen bilerak, geroago izango den *Symposium*-aren gertaeraz egingo dana, apirilaren 4 eta 5-ean izango da Iruñean, Nafarroako Museoa. Bertarako deiak dituztenak bereziki parte hartuko dute.

Berriz gogorazten da, euskera irakasten ari direnei karnetak gertatzeko, irakasleen *curriculum vitae* eta hoiak erabiltzen duten erakusketa metodoen berriak eta noiztik ari direnen xehetasunak ekartzea, bakoitzak bere aldetik hortan ari direnei dei egiaz.

Aditzera eman da, azken bozetan Baigorriko auzaphez irten dala Haritschelhar jauna. Zorionak eman zaizkio.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

*Euskaltzainburua*

LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*

JUAN SAN MARTIN

1971-IV-20

Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean, 1971-ko apirilaren 20-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Aita Damaso Intza-koa, Irigoyen, Lafitte, Mitxelena jaun euskaltzainak; G. Manterola jauna, euskaltzain ohorezkoa; Altuna, Arenaza, Aresti, Arkotxa, Azpeitia, Baztarricka, Berriatua, Berrojalbiz, Enbeita, Etxaniz, J. A. Etxebarria, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Gereño, Intxausti, Kerexeta, Kintana, Lizundia, Oleaga, Onaindia eta Santamaria jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Erkiaga, Eppherre eta Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Martxoko bilerako agiria ontzat hartzen da.

a) *Har-emanak*: EUSKERA aldizkariari diruzko laguntza emateko Aurrezki Kutxen federazioan egin den gestioaren berri ematen da.

Patrick J. Farrell euskaltzain laguntzailearen gutuna irakurri da. López-Mendizabal-en gramatika laburra inglesera itzuli duanez, behar diren zuzenketak egiteko laguntza eskatzen du. Mitxelena jaunak bere gain hartzen du zuzenketa lan hau.

Espasa-Calpe, S. A.-tik Azkue-ren *Euskalerraren Yakintza*-ren egile eskubideen ordainketa, igazko azken sei hilabetekoa, 2.368 pezeta. Baita

ere, aditzera ematen digute, IV-garren tomoaren argitalpena egin dutela.

Bilboko Liturgia batzordeko buru den Dionisio Borobio jaunak, liburu eta liburuxka, argitara berri dituen hamazortzi titulu bidali dizkigu: *Jai egunetako Irakurgaiak*, bi tomo (1970-1971); (1970); *Cuaresma*, erdera-euskara (1970); *Nueva Pastoral para el bautismo*, erdera-euskara (1970); *Meza Santua*, bi tomo (1969); *Kristau ikasbidea*, hiru tomo (1970); *Aste Santua*, bi tomo (1970-1971); *Garizumako Mezatarako abestiak* (1970); *Bateoa* (1970); *Umeen bateoko elizkizun-liburua* (1970); *Umeen bateoko doiñuak* (1970); eta *Autortzarako parkamen itzak* (1970). Denak Bilbon bertan argitaratuak.

Lafitte jaunak, bere aldetik, beste liburu hauek eman dizkigu: *Euskal alorretik*, bilduma (Baiona, 1970); *Histoire de l'Âme Basque*, Roland Moreau-rena (Bordelen, 1970); *Gure Almanaka* (Baiona, 1971); *Pétain Marechala*, D. Soubelet-ena (Imprimerie Régionale, 1941); *L'Homme Basque*, Etienne Salaberri-rena (Baiona, 1950); eta horiez gainera, bere lanetarik zenbait separata, *Correspondance adressée par G. Lacombe à l'Abbé M. Landerretche*; *L'Art poétique basque d'Arnaud Oyhenart*; *Eguberri-aroa euskaldunen ohiduretan*; *Une lettre inédite du Père Joseph Moret à Arnaud d'Oihenart*; *Sabino Arana Goiri*; eta *Georges Lacombe*. Gainera, *Bibliographie* zenbait lan eta J. Etchepare-ren *Axular* eta *Euskaltzainburu* izeneko lanen separatak.

Borobio eta Lafitte jaunei eskerrik beroenak ematea erabaki da.

Ismael Torres jaunak argitaratu duen *Umeen-deia* izeneko bilduma argital-penarentzat laguntza eskatzen da. 35 ale eskatzea erabaki da (25 ale Julia Berrojalbiz-entzat eta gainerakoak Euskaltzaindirako).

Idazkari-ordezkoak diru kontu gora-beherak eman ditu, aurtengo lehenengo hiruhilabetekoa: Bilbo eta Donostiako diru-etxeetan, zengoana 394.446,45; gehitua 104.341,89; urritua 439.320,14; guztiz dagoana 59.468,20 pezetu. Eta ondorean zertzeladarik aipagarrienak agererraziaz.

b) *Iruñean Symposium gertaerarako egin diren batzarren kontu ematen*: Santamaria jaunak txostena irakurri du batzar horietako gora-beheren xehetasunak emanaz. Egin ziren estudioak, irakaskintza legeon egoera aztertu, herri-iritziak zuzentzeko behar diren antolakizun eta zabalkundeak aztertu. Gai hauek behar bezala mugatuaz, udazkenean Symposium handia egingo dala.

Ondorean Herri Hizkuntzen idazkaritzako gutun bat irakurri da, Frederic Roda jaunak izenpetua. Elkargo honen jarraipenerako zuzendaritza berrituz, Santamaria jaunak jarraituko du Euskaltzaindiaren ordezkari, eta Institución Principe de Viana-k, bere aldetik, zuzenki izanen du ordezkaria; batzar haietan erabaki bezala, Jorge Cortes Izal jauna izango da. Herri Hizkuntzen idazkaritza hau mantentzeko presupuesto bat ere jartzen da, bertan sartuta dauden elkargo guztiek ordainduko dutena.

d) *Santamaria jaunaren txostena, euskal esaeren hiztegiak*: Esaera arruntenak adibide jarririk, hauek hiztegi bezala zelan antolatu, zer balio eman, eta abar, zehatz-mehatz aztertzen ditu, euskararen aberastasunerako hauek duten balioegatik hartu behar dugun arreta erakutsiaz.

e) *Etzegintza hiztegiaren batzordeko berriak*: Idazkariak eman du lana aurrera eramateko jarri dituzten oinharrien barri. Hitzen fitxeroa egitekotan gelditu dela Jesus Elozegi, gero, gelditzen diren hutsuneak be-

tetzeko arkitektoen kolejiokoekin eta J. M. Zumalabe jaunaren laguntzaz hornitzeko.

f) *Batzarreak eratzeko asmo batzuk*: Euskaltzainburuak proposatu ditu batzarreak hobeto aprobetxatzeko asmo hauek. Batzar egunean gehienok egun osoa galtzen dugunez, goiza batzordeen lanak antolatzeko utzi eta arratsaldean batzar orokorra egin. Batzordeak gehienetan toki askotako lankidez osatzen direnez, hauek elkarrekin batzartzeko aukera eman, hortara egun guztia Euskaltzaindiari eskaini ahal izateko. Prueba egiteko datarren batzarretik hastera erabaki da.

g) *Aresti, Berriatua eta Kintanaren txostena, aditz batua eratzeko bideei buruz*: Kintanak irakurri digu hiruren artean gertatu duten estudioaren sarrera, beren asmoa zertan den adieraziaz. Ortografiaren oin-harrizko batasuna erabakia dagoen eskero, aditz batasuna egin beharra dagoela. Aditz baturako gaiztasunak non dauden eta zelakoak diren azalduaz. 23 aditzen konjugazioa eskatzen dute, beren proposamendua eskainiaz.

Aditz batuaren batzordearen esku uztea erabaki da. Batzorde hone-tako kontseilari bezala, Aresti jaunak lehenago ezezkoa emana bazuen ere, orain konforme dagoela dio, eta bere laguntzarekin ere konta dezaten.

Altuna jaunak, bere aldetik, aditz batuaren batzorde berari, argitara berri eta laster zabalduko den liburua eskaini dio, aditz bateratuaren proposamenduz. Hau ere batzorde beraren eskuetara pasatuko da, behar diren azterketen lagungarri izateko.

h) *Batzordeak eta bakoitzak dakartena*: Euskaltzainburu jaunak, idatz araueri buruz egin den lanaren berri ematen du.

Euskaltzaindikoa araudi berriatuaren berradorea, aspaldi zabaldu zela batzordekoen artean, aditzera eman du Euskaltzainburu jaunak, baina oraindik erantzun guztiak hartzeke daudela. Bizkortu nahi litzake. Eta lege-gizonekin bileratxo bat egitea komeni dela.

“Xenpelar” izeneko bertso-paper sariketarako mahiburua izendatzen da: A. Irigoyen, S. Onaindia eta J. Garmendiak osatuko dute.

“Lizardi” izeneko poesia sariketa iragarri beharra adierazi da.

Euskera hitza “euskara” behar duela izan. Baina ez da ezertariko erabakirik hartu.

Euskaltzaindikoa bileren berriak argitaratzen dituzten aldizkariak eskertzea agirian jartzea erabaki da. Euskarazkoetan bialtzen zaizkien guztiak argitaratzen dute “Agur”-ek ez-zezik. Erderazkoei euskaraz eta erderaz bialtzen zaje, eta “Hierro”-k bakarrik argitaratzen du euskaraz. Irrati eta egutegiei euskeraz zerbaiz jartzea atseginaz ikusiko genukeala esanaz idaztea komeni dala.

Real Academia Españolak, “euskara” hitza K-kin jartzea onhartu duela, aditzera eman da.

Mitxelena jaunak, arratsaldean Deustuko Unibersidadean “Euskararen irakaspidea eta euskara irakaspide” gaiez jendaurren egingo den elkar-hizketan, bere sarrera erderaz hasiko duela, gero elkar-hizketak euskaraz jarraitzeko, baina bakoitzak libre izango duela nahi duen hizkuntzaz bialtzea.

Salamanca-n udaran egiteko den Congreso Internacional de Hispanistas-erako deia egiten digute Mitxelena jaunaren bidez, Euskaltzain-

diko norbaitek txostenen bat bidali edo bertan parte hartu nahi baldin badu.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

*Euskaltzainburua*

LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*

JUAN SAN MARTIN

1971-V-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Labayen, Lafitte, eta Zabala jaun euskaltzainak; Akesolo, Altuna, Berriatua, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Sarasola, Zatarain eta Zugasti jaun laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Larzabal eta Satrustegi jaunak ezinetorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Apirileko agiria ontzat hartzen da. Bertan esan gabe utzi zan, Erkiaga diru-zainak, bere etorri ezinagatik, idazkari-ordezkoaren esku utzi zuela aurtengo lehen hiru hilabeteko kontu ematea.

a) *Har-omanak*: Washington-dik Embajada de España-ko gutuna, eskerrak emanez beren eskaria beteaz *The Legend and Tales of the Basque People* Mariana Monteiro-ren liburuari buruzko berriak bidali genizkiolako.

Caja Laboral Popular-eko zuzendari den Jose Mari Ormaetxearen gutuna, egin genien diru eskariari erantzunaz, 50.000 pezeta bialtzen digutela aditzera emanez. Diru hau zernahitarako subentzio bezala ematen digute, batez ere gure biblioteca era-berritzeko. Eskerrak eman bekiez.

Ixaka Lopez Mendizabal euskaltzain ohorezkoaren gutuna irakurri da, Patrick J. Farrell jaunak bere gramatikari inglesera egin dion itzulpenaren zuzenketeri buruzko xehetasun batzuk eskatuaz. Idazkariaren esku gelditzen da xehetasunak idazkiz ematea.

Hartu diren liburuak: Diharce jaunak, *Aldareko liburua*, Liturgiari Kontzilio ondorengo lehen urratsa Belokeko Beneditanoek egin eskaintzen du, eta P. Lafitte jaunak Ikas-koek argitara berri duten Jean Barbier-en *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenekoa. Eskerrak eman zaizkie.

b) *Araudia berriatzeko batzordearen lanen berri ematea*: Euskaltzainhuruak aditzera ematen du zenbait azterketa eta zuzenketa egin zaizkiola lehen idazkiari eta orain Lojendio jaunaren eskuetan utzia dala, zenbait orraztaka egiteko. Orraztapenon ondorean, batzordeak berri dildurik begiratu duela biltzarrean presentatu aurretik.

d) *Idazte arauen batzordeak prestatu duen txostena*: "Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri": Euskaltzainburuak irakurri du lan honen sarrera, egoan premia adieraziaz eta lan-estudioa zelan eraman den kontuak emanez. Ondorean, batzordeak presentatu duen lana aztertu da eta erabaki hauek hartu.